

# MUSKIZ

## ESKOLAKO AGENDA 2030

7. GJH – Energia irisgarria eta ez kutsagarria

2021-2022

ODS 7 – Energía asequible y no contaminante

**AGENDA 2030 ESCOLAR**

## KONPROMISOAK ETA PROPOSAMENAK

## COMPROMISOS Y PROPUESTAS



**Aurkibidea. Índice**

SARRERA. INTRODUCCIÓN .....	2-3
MUSKIZKO IKASTETXEETAKO IKASTELEEK HARTZEN DITUZTEN KONPROMISOAK. COMPROMISOS ADQUIRIDOS POR EL ALUMNADO DE LOS CENTROS EDUCATIVOS DE MUSKIZ .....	4
MUSKIZKO IKASTETXEETAKO IKASLEEK UDALARI EGITEN DIZKIOTEN PROPOSAMENAK. PROYECTOS QUE REALIZA EL ALUMNADO DE LOS CENTROS EDUCATIVOS DE MUSKIZ AL AYUNTAMIENTO .....	5

## SARRERA

Maiatzaren 4an, Muskizko Gaztegunean, 2021-2022 ikasturteko Muskizko Eskolako Foroa (Eskolartekoak) egin zen.

Topaketa honen helburu nagusia, Udal Foroan aurkeztu beharreko konpromiso eta proposamenak lantzea izan zen baina horretaz gain, Eskolako Agenda 2030 programako parte-hartzaileek elkar ezagutzeko eta esperientziak trukatzeko aukera izan zuten.

Saioa hasteko, sarrera bat eta aurkezpen bat egin ziren, jarduera testuinguruan kokatzeko. Ondoren, talde txikietan, ibilbideak eta jardunaldi teknikoak egitetik ateratako ondorioak gogorarazi zituzten, ondorio horiek kontuan hartuta konpromisoak hartzeko eta udal-ordezkariei zuzendutako hobekuntza-proposamenak adosteko.

Jarraian adierazten diren udalerriko ikastetxeetatik 27 ikaslek hartu zuten parte:

- Cantarrana HLHI-6 ikasle
- San Juan Bautista HLHIP-4 ikasle
- Muskiz BHI-6 ikasle
- Somorrostro LHIPI 11 ikasle

## **INTRODUCCIÓN**

*El 4 de mayo se celebró en el Gaztegune de Muskiz el Foro Escolar de este curso 2021-2022.*

*El objetivo principal de este encuentro, fue a trabajar los compromisos y propuestas a presentar en el Foro Municipal, pero, además de ello, los participantes de la Agenda 2030 Escolar tuvieron la oportunidad de conocerse e intercambiar experiencias.*

*La sesión comenzó con una introducción y una presentación para contextualizar la actividad. Seguidamente, en grupos pequeños recordaron las conclusiones obtenidas de la realización de los itinerarios y de las jornadas técnicas, para, teniendo en cuenta esas conclusiones adquirir unos compromisos y acordar unas propuestas de mejora dirigidas a los representantes municipales.*

*De los centros escolares del municipio que se indican a continuación participaron 27 alumnos y alumnas:*

- Cantarrana HLHI-4 alumnas y 2 alumnos
- San Juan Bautista HLHIP-2 alumnos y 2 alumnas
- Muskiz BHI-3 alumnos y 3 alumnas
- Somorrostro LHIPI 6 alumnas y 5 alumnos

## MUSKIZKO IKASTETXEETAKO IKASLEEK HARTZEN DITUZTEN KONPROMISOAK

### COMPROMISOS QUE ADQUIERE EL ALUMNADO DE LOS CENTROS EDUCATIVOS DE MUSKIZ

Gure udalerria eta ikastetxeak aztertu ondoren, Muskizko ikasleek Ingurumena zaintzeko eta errespetatzeko konpromisoa hartzen dugu. Horretarako:

*Después de haber analizado nuestro municipio y nuestros centros, el alumnado de Muskiz nos comprometemos a cuidar y respetar el Medio Ambiente. Para ello:*

1. Energia aurreztuko dugu. Adibidez, entxufeak kendu, beharrezkoak ez diren argiak itzaliko ditugu eta aparatuak ez ditugu stand by moduan utziko.  
*Ahorramos energía. Por ejemplo, quitaremos los enchufes, apagaremos las luces que no son necesarias y no dejaremos los aparatos en modo de stand by.*
2. Berogailua ez dugu 20 gradutik gora jarriko.  
*No pondremos la calefacción a más de 20 grados.*
3. Ez dugu ura alferrik galduko (dutxatzean edo hortzak garbitzean, adibidez)  
*No desperdiciaremos el agua (al ducharnos o al lavarnos los dientes, por ejemplo)*
4. Erabiltzen ez dugun arropa berrerabiliko dugu: behar duen norbaiti emango diogu edo edukiontziz zurian botako dugu, adibidez.  
*La ropa que ya no utilizamos la reutilizaremos: se la daremos a alguien que la necesite o la echaremos, por ejemplo, en el contenedor blanco*
5. Garraio publikoa gehiago erabiliko dugu  
*Utilizaremos más el transporte público*
6. Eskolako materiala berrerabiliko dugu, eta gehiago zainduko dugu.  
*Reutilizaremos el material escolar, y lo cuidaremos más.*
7. Plastikozko produktuak erosten saihestuko dugu: erosketak egiteko telazko poltsak erabiliko dugu, ontziratu gabeko produktuak erosiko dugu, ontziratu ordez.  
*Evitaremos comprar productos que contengan plástico: utilizaremos bolsas de tela para hacer las compras, compraremos productos sin envasar en vez de envasados.*
8. Zakarrontzi gehiago eskatzen ditugunez, horiek erabiltzeko eta zaborra lurrera ez botatzeko konpromisoa hartzen dugu. Eta lagunak edo senideak paper bat lurrera botatzen ikusten baditugu, jasotzeko esango diegu.  
*Ya que pedimos más papeleras nos comprometemos a utilizarlas y no tirar la basura al suelo. Y si vemos a amigos/amigas o familiares tirando un papel al suelo les diremos que lo recojan.*

## MUSKIZKO IKASTETXEETAKO IKASLEEK UDALARI EGITEN DIZKIOTEN PROPOSAMENAK INGURUMENA ZAINTEKO

### PROPUESTAS QUE REALIZA EL ALUMNADO DE LOS CENTROS EDUCATIVOS DE MUSKIZ AL AYUNTAMIENTO PARA CUIDAR EL MEDIO AMBIENTE

Baina gure ikastetxe eta udalerriaren kalitatea hobetzeko, gure konpromisoak betetzeaz gain, Udalaren lagunza behar dugu, beraz hurrengo hauek eskatzen dizkiogu:

*Pero para mejorar la calidad del municipio y de nuestros centros, además de llevar a cabo nuestros compromisos, necesitamos la ayuda del Ayto y por eso pedimos:*

1. Zakarrontzi gehiago jarri leku hauetan: Pobal pasealekua, hondartzako pasealekua eta Itsaslur.  
*Poner más papeleras en sitios como: Paseo del Pobal, paseo de la playa e Itsaslur*
2. Muskizko biztanleen artean bigarren eskuko merkatu bat sustatzea (pandemia aurretik San Juan Bautista ikastetxean egiten zena bezalakoa).  
*Impulsar un mercado de segunda mano entre los habitantes de Muskiz, (como el que se hacia antes de la pandemia en el centro escolar San Juan Bautista)*
3. Muskizko herritarren artean energia berritzagarriak instalatzea eta/edo erabiltzea bultzatzeko lagunza ekonomikoak eta informazioa.  
*Ayudas económicas e información para impulsar la instalación y/o utilización de energías renovables entre la población de Muskiz.*
4. Herrian zehar mugitzeko bizikleta elektrikoak jartzea.  
*Instalar bicicletas eléctricas para desplazarse por el pueblo.*
5. Parke eoliko bat edo marea-energiaren sistema bat sortzearen bideragarritasuna aztertzea  
*Realizar un análisis de la viabilidad de la creación de un parque eólico o sistema de energía mareomotriz.*
6. Argiztapen-sistema berrikustea, farolak ahalik eta denbora laburrenean piztu daitezen.  
*Revisar el sistema de alumbrado para que las farolas se enciendan el menor tiempo posible.*
7. Auto elektrikoak kargatzeko puntu gehiago instalatzea.  
*Instalar más puntos para la recarga de coches eléctricos.*
8. Udal eraikinetan energia aurreztea: adibidez kaleko argi naturala gehiago erabiliz, eta ahal den lekuetan mugimendu-sentsorea duten argiak instalatu  
*Ahorro energético en edificios municipales: por ejemplo, utilizando más la luz natural de la calle, e instalando luces con sensor de movimiento donde sea posible*